

FELIPE ARRESE-BEITIA-:.... ETA GERNIKAKO ZUGATZA

Oleidkaria

..

Gaur doguz 75 urte Arrese il zala; 1906-1-16'an joan jakun, «beti joan eta biurtuten» ez danak eroanda. «Amaituteari urtea,/barriro dator b.este».inoan..berak;b.aina joandako aldirik atzera ez datorren lez, ezta ildakorik be.

Alan eta guzti be, Arrese-Beitia joan jakula iirteak izan arren, aren gomuta ez daukagu aaztii-lezara botata. Omerialdiak be askotan egin izan jakoz, bizitzan eta il ondoren, bere errian eta erritik kanpora. Etzan alperrik izan urte mordoan Eiiiskalerra oso sustatu ebari blerkari bikain errimea.

Aria ez etetearren, bere aita lez arotz izan zan: arotzerian, eta santiigintzan berariz, Ian eginik bizi' izan zan: ainbat'santu-irudi eder or-emengo eleizetah, batztik berak barriztuta eta beste batzuk jatorrak, berak oso osorik eginak. Eta ez ikondo bakarrak, Durango'ko Saturnino Basoa ertilariak esan oi ebariez, baita aretx-enbor bikaifiez be.

Ogibide edo bizimodu orretan ziarduala;. ondo ^zitian kontaezin beste Ian, Areatzako Urretxindorrek, Kepa Enbeita'k soloko lanen artean lez, jakiiia: biok doguz, Bizkaian beintzat,

bertsoz geien idatzi dabenak, bertsolari maillan; biok gainera euren garaiko semeak, Arrese'k bere garaiko Errromantikuen antzera, ta K. Enbeita'k gizaldi onen lenengo iru amarkunetako giroari loturik. Biok, alan be, euskera garbi, errikoi, leim eta gartsuan.

Euskal bertsolariak olaxe trebetua izan da, aii da, bere eguneroko zeregin artean, biotzak —baita zintzurreko kantuak be— eraginda biribildu izan ditu bere lanik ederrenak. Era orretart egunean eguneango lanari eragoian Arrese-Beitia'k, baina mindua ebillen bigarren karlista gerraren amaieratik eta orduantxe asi zan bere barnea ustuten. Elizondo'ko euskal jaietako konkurtsora bialdu eban ospetsu egin eban lenengo poesia: *Ama Euskerai azken agurrak*. 1879 zan. Geroztik ainbat eta ainbat poesi-lan osotu zituan danak gero sua ta negarra erioela. Larri-mina sarri izaten jaku barru-osina naasi ta biztu-azoten dauskuna; adimena zorroztu oi jako olerkariari, biotza sutu ta egon-ezinez jarri, eta orrela lertzen dauan olerkia zorabioz eta lilluraz gainezkakoa izaten jaku. Or Arrese-Beitia'ren olerki-lan osoa, ugaria ta jatorra.

Gernikako Ziigafza

Gernikako «Arbola», Zugatz sagaratua len eta orain. Egunokaz Arbola onen kerizpean batu dira, Diru-Itunben barria dala-ta, gure iru Probintzietako alkateak, iru Aldundietako buruakaz eta Eusko-Gobernuko Lendakariagaz. Antxina bateko, gure asaba zarrak alkar batzen ziran garaietako oiturai jarraitu nairik, batu ziran euskaldun zintzo guztiok, Arbola bedeinkatuaren ondoan lengo igandean, euriz eta edurrez —euskaldunon gaurko giroa ez ete?— otz egoan toki ori epeldu naiean.

Gernikako Aritzaren zoritxarrak jota —gure erria, gure euskerea berton—, egin jakun Arrese egiazko olerkari; «Onek bezain bigun eta sentikor ez ditu inok kantau Euskalerrria, Euskera ta Aritz aren atsekabe-lorrak. Sarri urreratu oi zan Aritzaren ondora eta «burua billos eta begiak malkoz» kanta: «0 Aretx itzalgarri!, o Aretx danetan autua!, o Zugatz agurgarria!, zeraak dadi noztik zagozan or erne ta azia; zure gorputz-suster, buru-be aga, abar, kimu ta orriak, bitez aldioro garbi ta zindoak!».

Kantu errikoi ta lirikuen artean batez be ba-ditu eder-ederrak, biotz-muinetik urtenak; bere blotzeko lira ozenari ots-eginez nunbait, neurtitz mazalak, txori egalari antzera egaz dagienak. Biotza negarti dogu geienez, eta Arrese'k negar egian, baina etzan berea negar larria, il-mifiak emoten dauan negar ikarakorra, etsi goi-afnasaduna baino. Ba-ditu oso bikaifiak: *Agur, time!, Angela, Illeta* ta abar.

Min dau biotzean Gernikako Arbola ta Euskera orren billosik ikustean; min, min gogorra dauko barruan. Ama ikusten dau «zaurien zauriz» galduta; ama —erria ta euskera— galduta, iltera doalarik. «Ai, neure ama —dino— nun dira gaurko semiak?». Seme madarikatuak aaztu egin dabe ama. «Nun dira, bada, zure semiak / Foru ta euskera zaliak?».

Arrese, baina, ezta iiiolaz be arin etsitzen diran orreitakoa. Ama ilten ikusi arren ba-dau itxaropenaren argi-izpia, laino artekoa nunbait. Malkoak gorde ezifiik aldendu zan amaren oinetatik ama ez dala il erriari iragarten, euskaldun bat eta garbi izan gaitezala esaten. «Neure anaiok —dino—, bat izan beti / euskeldun sifiiskeretan; / bat izan geure uste, eritxi... Fede bizi bat baldin badogu, biotz eta arimetan, / bakez biziko gara oraindak».

3. *Onaindia*

Garage ETXEITA ^

SOLORAKO TA BASORAKO MAKINA BANATZAILLEA

Baserritarirak: **Onako** makinank bear ba'dozue,
merke ta onak stxe onetan aurkituko dozuez.

Urrut. 73 04 64 - 73 05 38

AMGREBIETA - BIZKAIA